- En cuanto a la resolución de licencia de obras concedida a José Andres Urtasun, el concejal Sr. De Potestad pregunta sobre el alcance de las obras que va a realizar en el camino Maiorlategia a la altura de la casa de Lastape, ya que está haciendo un muro y un cierre en terreno que no es suyo. El alcalde Sr. Irigaray contesta que se trata de echar un poco de tierra y “cuatro” piedras para sujetar el terreno para tenerlo ajardinado y en buenas condiciones ya que, aunque es comunal y de hecho por eso en la concesión de licencia se le exime del pago del ICIO, es en definitiva el solicitante, propietario de la casa colindante, quien lo va a disfrutar. El concejal Sr. De Potestad reitera que debe quedar claro el carácter de comunal de dicho trozo de terreno a fin de evitar el día de mañana problemas respecto a la titularidad del mismo.
- La Secretaria informa de que se va a convocar sesión extraordinaria para el día 29 de abril de 2014 a fin de proceder a la elección de los miembros que formarán parte de las mesas para las Elecciones al Parlamento Europeo el día 25 de mayo de 2014.

Y no habiendo más asuntos que tratar siendo las 21,45 horas del mismo día se levanta la sesión de lo que doy fe.

Aurizko Udaletxean, 2014ko apirilaren 15ean, 20:00etan, Udala bildu zen bilkura arrunta egiteko. Bertaratuak: M<sup>a</sup> Roncesvalles Azanza Burusco, M<sup>a</sup> Aranzazu Oyarbide Lapazarán , Juan Manuel Azanza Burusco, Luis De Potestad Tellechea eta Jesus Martinez Rico, bilkuraburu alkatea, Jose Irigaray Gil izan zen eta idazkaria, udalbatzarena, Marisol Ezcurra Irure; Alejandro Otegi Echeverría zinegotziak etortzerik ez duela jakinarazi du.

## **1.- 2014ko OTSAILAREN 11n EGINDAKO BILKURAREN AKTAREN ONESPENA**

Udalbatzak erabaki du aho batez 2014ko otsailaren 11n egindako osoko bilkuraren akta onartzea.

## **2.- 2014ko OTSAILAREN 7tik APIRILAREN 10a ARTE ALKATEAK EMAN DITUEN EBAZPENEN INGURUKO INFORMAZIOA**

Alkateak jakinarazi du 2014ko otsailaren 7tik apirilaren 10era eman dituen ebazpenak, horiek bilkurako espedientean daude eta udalkide guztiak jakitun daude.

De Potestad jk. galdetu du Mendizarren adjudikazioaz ari den ebazpena zer den. Alkateak, Irigaray jk., erantzun dio Saroberriko bidearen lanak direla, 2013an sartu zela aurrekontuetan baina eguraldi txarra zela eta ezin izan zela urte horretan egin.

## **3.- 2013ko KONTUEN HASIERAKO ONESPENA**

Udala Kontuen Batzorde Bereziaren lanak eginez ari da.

Kontuhartzaileak Kontuen Hertsieraren inguruko dokumentazioa aurkeztu eta azaldu du. Modu berean alkateak, Irigaray jk., jakinarazi du onartutako obligazio garbiak 452.211,85 € direla, diruzaintzako gordekina gastu orokorretarako 212.624,15 € eta aurrekontuaren emaitza 58.943,35 € dela.

De Potestad jk. hitza hartu du eta esan du seguruen partidari dagokionez Udalak kontratatuak dituen polizak berrikusi beharko liratekeela, eskaintza oso onak baitaude merkatuan. *Zerbitzuen mantenimendua eta materialak, langabetuen plana* izeneko partida altua denez hornitzen duten enpresekin negoziatu beharko litzatekeela dio, prezioak egokitzeko. Azkenik dio *aholkularitza juridikoa* izeneko partida aurreko urtekoa baino altuagoa dela. Jakinarazi zaio partida horren kopuru gehiena 2012. urteari zegokiola eta ez 2013ri, ordaindu gabe zeuden gauza batzuk sartu baitira.

Beraz, 2013ko Kontuen Hertsiketaren espedientea ikusita, aho batez erabaki da:

1.- Kontuhartzaitzak egindako "Kontu Orokorra" onartzea

2.- "Kontuen Batzorde Bereziaren Txostena" onartzea eta jendaurrean paratzea iragarki oholean, Nafarroako Toki Ogasunen Foru Legearen 242.3 artikulua dionarekin bat eginez.

## **4.- 2014ko AURREKONTUAREN HASIERAKO ONESPENA**

Alkateak, Irigaray jk., 2014ko aurrekontuak aurkeztu ditu, 525.653 €, eta krisi egoerarekin bat egiten dutela esan du. Inbertsioen atalean bideen zolaketa, eskola-udaletxeko teilatuaren konponketa, Saroberrri pasealekua, behitiko lixibategiko teilatuaren berriketa eta wifi jartzea.

Jakinarazi du baita egingo diren lanen arabera diruzaintzaren gordekina erabiliko beharko dela aurrekontuaren aldaketan bidez. Beste aldetik eta udaletxea zein eskolak dauden eraikinaren teilatuaren konponketari dagokionez finantziarioa bilatzen ari da Nafarroako Gobernuak dirulaguntzen bidez.

Aurrekontuak eztabaidatu ondoren erabaki da aho batez 2014ko aurrekontuak hasiera batean onartzea.

## **5.- 2014ko PLANTILLA ORGANIKOAREN ONESPENA**

Alkateak, Irigaray jk., hitza hartu du eta esan du ez dagoela aldaketarik, aurreko urtekoarekin alderatuta.  
Udalbatzak erabaki du aho batez 2013ko plantilla organikoa honako izatea.

#### Funtzionarioak

Lanpostua. Zerbitzu Anitzetako Langilea. Plaza kopurua: Sarbidea: Oposizio-Lehiaketa Maila Lan egoera: Jardunean. Mailako osagarria %15. Lanpostuko osagarria %15,77 lanaldi osoa.

Funtzionarioen izen-zerrenda Jesús Román Pedroarena Etulain.

#### Lan kontratudun finkoak

Lanpostua. Administrari laguntzailea. Plaza kopurua: 1. Sarbidea: Oposizio-Lehiaketa. Maila Lan egoera: Jardunean. Mailako osagarria: %12, Lanpostuko osagarria: %28,35. Lanaldia: 28,56%.

Lanpostua. Administrari laguntzailea. Plaza kopurua: 1. Sarbidea: Oposizio-Lehiaketa. Maila . Lan egoera: Jardunean. Mailako osagarria: Lanpostuko osagarria: %28,35. Lanaldia 28,56%.

Lanpostua. Zerbitzu Anitzetako Langilea. Plaza kopurua: 1. Sarbidea: Oposizio-Lehiaketa. Maila . Lan egoera: Jardunean Mailako osagarria: 15%. Lanpostuko osagarria %8,77, Lanaldia: %35.

Lan kontratudun finkoen izen-zerrenda.

Administrari laguntzailea Ana Isabel Erneta Erro.

Administrari laguntzailea María José Garralda Zubiri.

Zerbitzu anitzetako langilea: Cristina Carra Garcia

#### Behin-behineko lan kontratudunak:

Lanpostua. Euskara teknika Plaza kopurua: 1. Sarbidea: Oposizio-Lehiaketa. euskara. Maila Lan egoera: Jardunean Mailako osagarria: 15%. Lanpostuko osagarria %6,73 lanaldi osoa.

Behin-behineko langileen izen-zerrenda:

Euskara teknika Teresa Iribarren Larrea.

#### Orreaga eta Erroibarko Udalekin bateratutako zerbitzuak

Kargua: Idazkaria. Plaza kopurua: 1. Sarbidea: Oposizio-Lehiaketa. A Maila. Lanpostuaren osagarriak.%40, Bateriaezintasuna %35 Lanaldi osoa

Administrazio lan araubidean kontratatutako langileen izen-zerrenda:

Ezcurra Irure, M<sup>a</sup> Soledad. itarteko idazkaria. Egoera: Jardunean Antzinasuna 2012/06/11.

## **6.- KONTUAK ETA AURREKONTUAK AURKEZTEKO BATZARREA**

Udalbatzak, alkateak, Irigaray jk., proposaturik, erabaki du aho batez kontuen eta aurrekontuen Batzarrea maiatzaren 9an, 19:30ean egitea.

#### **7.- AURITZEN AZIENDA HONDAKINDEGIA EGITEKO BALDINTZAK**

Alkateak, Irigaray jk., hitza hartu du eta esan du azien da hondakinen arautegia aldatu ondoren hondakindegia ezarriko direla, bai publikoak zein jabeak zein udalerrien artean erabiltzekoak. Hortaz, proposatu du Udalak azien da hondakindegia bakarra eskaintzea abeltzainei udalerrian. Eta hondakindegia hori Otsamietan edo Berroaundian jartzea, tokirik egokienak direlako. De Potestad jk. hitza hartu du eta esan du egokiena dela abeltzainei herriko lurretatik zati bat uztea azien den hondakinak bertara eramateko.

Beraz, abeltzainek horietako bat aukeratu beharko lukete eta azien da hondakindegia uzteko arautegia eskatzen duena betetzea.

Aho batez erabaki da Irigaray jk. egin duen proposamena onartzea eta abeltzainekin bilera egitea gaiaz mintzatzeko.

#### **8.- MIKEL CHOURRAUT ECHEVERRIAK BARATZA EDUKITZEKO EGIN DUEN ESKAERA**

Alkateak, Irigaray jk., jakinarazi du Chourraut Echeverria jk. baratza eskatu duela. Horiek horrela, proposatu du Maiorategian, A eremuan, 6 poligonoko 33 lurzatia ematea, honako baldintzen pean:

- Zegoen sasia berreskuratu beharko du.
- Dagokion kanona kobratuko zaio.
- Errealitatean bi baratza direnez beste eskaera bat dagoenean bat utzi beharko du, nahiz eta dauden fruituak errespetatuko zaizkion.

Udalbatzak erabaki du aho batez Maiorategian, A eremuan, 6 poligonoko 33 lurzatia Chourraut Echeverria jaunari uztea alkateak, Irigaray jk., aipatutako baldintzen pean.

#### **9.- IKURREN FORU LEGEA UDALAREN AK DIREN LOKALETAN APLIKATZEKO ERABAKIA**

Alkateak, Irigaray jk., azaldu du udaletxean banderak jartzeko errekerimendua bete ondoren, zenbait bizilagunek horren aurkako iritzia azaldu dutela bere etxeetan ikurriñak jarri, hau da, "akzio-erreakzio" efektua sortuz.

Gazteek ikurriña jarri zuten Udalak utzitako eraikinean, hau da Goitiko Lixibategian. Martxoaren 6an, Juan Bautista Urtasun Erro jk. idazkia aurkeztu zuen udalean banderen aferan indarrean dagoen legea betetzeko ikurriña kentzea agindu zezan edo, bestela, udal zerbitzuek kendu zezatela. Egoerak sortzen zituen zalantzen aurrean txostena eskatu ziola idazkariari eta horretan esaten dela gatzetxean ikurriña jartzeak legea urratzen duela udalarena den eraikina baita eta adinez txikiak diren gazteei tokia utzi zitzaiela eta batzorde batek kudeatzen duela eta horretan udala dagoela.

Gaineratu du argi utzi nahi duela berea dela sentitzen duten nafar askok bandera hori ezin jartzeak akats demokratiko penagarria iruditzen zaiola eta Euskalerrria bi estadutan eta horien barne administrazio deferenteetan



banatuta egotearen ondorio dela dio. Ikurriñaren historia Nafarroako historiaren zati bat dela, Gamazada gertatu zenean, 1894ko otsailaren 18an, Foruen aldarrikapena egin zela eta orduan jarri zela lehenengo aldiz ikurriña Kastejonean. Aipatu du gure Iparraldeko bizilagunek, gu bezain nafarrak, inolako arazo edo konplexurik gabe erabiltzen dutela Nafarroa edo Frantziako banderekin batera eta gure herriko bizilaguna izan zen Hermilio de Oloriz jk., Altadill eta Campinekin batera 1910ean Nafarroako Diputazioaren eskariz Nafarroako bandera ofiziala diseinatu zuenak, Auritzen zeukan etxean biak jarri ohi zituela inolako arazorik gabe, bere ustez biak osagarriak zirelako.

Bere ustez indarrean dagoen legeak ez ditu gure herriko identitate sentimentuak errespetatzen, idazkia aurkeztu duenak dioen bezala, bizilagun guztiak ikur batzuk inposatzen zaizkielako, eta diskriminazio hori arriskutsua izan daiteke elkarbizitzarako.

Martinez jk. hitza hartu du eta esan du alkateak, Irigaray jk., aipatu duenarekin ados dagoela eta bere taldearen izenean, EAJPNV, hainbat gogoeta irakurri du, bukaeran osoko bilkurak testu bat onartzea proposatu du, hona hemen:

Lehenengo: Aurizko Udalak uste du gazteek erabiltzen duten udal egoitzan ez da Nafarroako Ikurren apirilaren 4ko 24/2003 Foru Legea urratzen, hortaz, Udalari ezin zaio egintza administratiborik eskatu.

Bigarren: Aurizko Udalak bere egiten du ikurren arloko legearekiko errespetua, eta aldi berean adierazi nahi du konpromezua hartzen duela, gurea bezalako gizartean, anitza eta hondua, ikurren adierazpen guztiak elkarrekin bizi ahal direla, errespetu eta tolerantziatzeko giroan.

Idazkariak hitza hartu du eta esan du txostena egitean zalantza anitz izan zituela, izan ere bi txosten egin zituen, baina jurisprudentzia irakurri eta tokia utzi den modua aztertu ondoren, Udalak toki hori kudeatzen duen batzordean parte hartzen duela kotnua hartuz eta erabiltzaileak adinez txikiak direnez, uste du Udalak ikurren legea bete behar duela, gazteei eskatuz ikurriña kentzea edo udal zerbitzuek ken dezatela. Dena den, bere txostena nahitaezkoa da baina ez loteslea, eta zuzenbidean hobeki oinarritutako beste irizpide baten menpe egon daiteke, hortaz, udalbatzak ikusiko du zer erabakitzen duen horren inguruan.

Alkateak, Irigaray jk., erantzun du gaien Udalak nola jokatu beharko lukeen dioen txosten juridikoa baldin badago, uste duela ezin dela txostenak gustukoak ditugunean erabili eta kasurik ez egitea gustukoak ez direnean. Egindako txostenak, bere ustez, ez duela zalantzarik uzten Udalak hartu behar duen jarreraz, indarrean dagoen jurisprudentziari oinarritu baita eta, hortaz, onartu behar da, nahiz eta behin baino gehiagotan esan duen moduan, bera ados ez egon indarrean dagoen legearekin. Martinez jk. hitza hartu du eta esan du zinegotzi gisa eta ez bere udal taldearen ordean, eta aktan konstaraztea nahi duela, Udalari eskaera egin dion pertsonari igorritako idazkia irakurri nahi duela.

*“Recientemente, fue cursada en el registro del ayuntamiento de Auritz-Burguete una queja por parte de un vecino de la localidad a propósito de la colocación de una ikurriña en un local municipal, local que en su día fue cedido a jóvenes de*

la localidad para uso y disfrute de este colectivo por parte de actual ayuntamiento.

En su exposición, asegura que se está vulnerando la legalidad vigente en esta materia y que, en su día, la condición establecida para la cesión de este local era la de que no se pudiese realizar actividad política alguna, ni se exhibiese símbolo político alguno. Afirma, seguidamente, que con esta actuación están siendo vulnerados los criterios por los que se cedió este local, y se pregunta si el Ayuntamiento es consciente de que esta es una forma de discriminación muy peligrosa para la convivencia en Auritz-Burguete.

Resulta sorprendente y contradictorio que en el escrito de este vecino, más concretamente en su apartado N°-3, dice no saber bajo qué condiciones se cedió este local a los jóvenes, para a renglón seguido explicar bajo qué normas se cedió. Como juez y fiscal da por probado y acusa al colectivo de jóvenes que actualmente accede a este local que utilizan el mismo para la práctica política, utilizando para ello simbología de la CAV y poniendo en peligro la convivencia y la paz en la localidad.

No pueden resultar mas bochornosas las afirmaciones que en el escrito se mencionan, por no decir patéticas y provocadoras, y mas propios de tiempos pretéritos de los cuales parece ser fiel seguidor, aunque lo enmascare con un aura de moderación virtual, que no puede maquillar el nacional catolicismo español que quisiera que se instaurase en Auritz y, por ende, en Navarra. Son malos tiempos para la lírica, como decía la canción, y está muy mal visto en la localidad mostrarse con un discurso sectario antivasco; de ahí lo de la moderación virtual a la que antes me refería.

Como ya sabrá el denunciante, y trasladando la anécdota de la colocación de este símbolo a la alta política, que es donde quiere usted interesadamente centrar la polémica, quiero recordarle que en los sucesivos comicios electorales que se han ido dando en los últimos años, el pueblo de Auritz-Burguete ha mostrado su apoyo a opciones bien distintas a la suya y toman como propio este símbolo, el mismo que usted está denunciando como una imposición que puede alterar y crispar la convivencia entre vecinos.

Hablemos ahora de historia y simbología: la palabra ikurriña, con la grafía ikuriña, es un neologismo procedente de ikur (símbolo en euskera). Anteriormente hubo diversos intentos para la creación de algo que simbolizara al conjunto de territorios forales (Álava, Guipúzcoa, Vizcaya y Navarra), pero no fructificaron, como el realizado por Pedro de Soraluze.

En 1894, durante la Gamazada, Juana Irujo, esposa de Estanislao Aranzadi, borda un estandarte parecido al de la cruz de borgoña de los carlistas, según el boceto realizado por los hermanos Arana en el Café Iruña de Pamplona, que consistía en una cruz de San Andrés roja sobre fondo blanco. Si bien algunos han considerado que este estandarte se correspondía con la primera ikurriña, Luís Arana desmintió este hecho, aunque si fue este el primer símbolo vasco del que se tiene noticia.

Arana diseñó bocetos de banderas para otros territorios forales, pero no llegaron a tener difusión. La ikurriña, inicialmente símbolo de Vizcaya, se convirtió en unos años en un símbolo que representaría también al resto de territorios forales. Se adoptó como enseña oficial en 1936, pero fue ilegalizada por el Gobierno militar surgido del golpe de estado contra la 2ª República ese mismo año. Durante la dictadura franquista, su exhibición fue duramente perseguida en España, lo que la convirtió también en un símbolo antifranquista. El 19 de enero de 1977 volvió a permitirse su uso en España y el día 25 de ese mes se ondeó por acuerdo municipal, entre otros muchos municipios, en el Ayuntamiento de Pamplona, o el de Villava, donde se realizó un referéndum que al resultar favorable propició el uso de la enseña en el balcón municipal y en el salón de plenos de la localidad. Ahora mi pregunta es: ¿Quiere usted reeditar las viejas fórmulas golpistas del 36 que prohibieron la exhibición de este símbolo? Parece ser que, tristemente, es así.

Resulta increíble, pues, que aún haya gente que nos quiera retrotraer a aquellos años oscuros de sangre y fuego. Son estas actitudes, y no otras, las que hacen peligrar la convivencia y el respeto al que usted alude y máxime en una sociedad como la Auritztarra. La exhibición de este símbolo en la fachada de un triste almacén, en pleno siglo XXI, no puede desencadenar el mismo proceder y odio emulando a aquellos golpistas del 36.

Hablemos ahora de la utilización "legal" del símbolo en cuestión. En Navarra, a pesar de no ser una bandera oficial, es utilizada con frecuencia como símbolo político para unos y como símbolo cultural para otros. Por ejemplo, el Ayuntamiento de Pamplona el 10 de diciembre de 1981, con los votos favorables de UCD y UPN y la abstención del PSN, aunque estos en gran parte eran favorables de que ondeasen junto con las demás banderas, se decide retirar la ikurriña de la casa consistorial, aunque la mayoría de municipios la mantuvieron.

En el 2003, el Parlamento de Navarra, tras alcanzar la mayoría parlamentaria UPN y CDN, aprobó la ley foral de símbolos de Navarra, no exenta de críticas y polémica entre la ciudadanía Navarra. Esta ley obliga a todas las entidades de la administración local de Navarra a exhibir la bandera de Navarra y la de España en el exterior de todas sus sedes administrativas, así como despachos y salones de plenos corporativos, y prohíbe que ondeen más banderas que la oficial de cada localidad.

A partir de ahí el uso de la ikurriña quedó prohibido y el ejecutivo foral denunció y pidió la inhabilitación de alcaldes que permitieran la colocación de la ikurriña en los edificios administrativos municipales, amenazando con retirar las subvenciones públicas a los ayuntamientos que incumplieran la ley. Parece ser que no está usted solo en eso de reclamar actitudes y leyes pretéritas llevadas a cabo en el 36, y le tiene que reconfortar sobremanera. Pero, no se confié, porque el recorrido político de los que articularon esta tropelía llegará a su fin más pronto que tarde, para el bien de los navarros y navarras, amén.

¿Sabía usted que en el país vasco-francés, como seguramente le gustará definir a este enclave, la ikurriña se utiliza frecuentemente? Según los

*responsables de turismo del Departamento de Pirineos Atlánticos, con la ikurriña se simboliza la región, la lengua y la cultura propias de la zona. No hay ninguna ley que regule su uso y ondea en varios ayuntamientos del territorio, como en Bayona, San Juan De Luz, Expélete, Jaxu, Sare, entre otros, junto a la bandera francesa y la europea, y ondea también en otros edificios como en el castillo de Mauleon.*

*Es exhibida a menudo en festejos, actos culturales (como en las pastorales) y eventos deportivos. La ikurriña es también uno de los elementos que, junto con las banderas de Bretaña y Normandía, aparecen en la bandera local y en el escudo oficial de San Pedro y Miquelon (Saint-Pierre-et-miquelon), colectividad francesa en América del Norte, representando su herencia cultural vasca. Resulta paradójico el contraste que hay entre esta forma de entender la simbología y la libertad de expresión y la que promulgan en el siglo XXI los actuales mandatarios del gobierno navarro.*

*Pero, como le decía, todo pasa y todo llega. No se quede usted solo enarbolando la bandera de la exclusión, del visceralismo antivasco y de ese tildo nostálgico predemocrático. Lo agradecerá su mente y su espíritu y, sobretudo, la sociedad Auriztarra.*

Gaia eztabaidatu ondoren erabaki da aldeko lau botoz (Azanza, Oyarbide, Azanza eta Irigaray) eta aurkako bi botoz (De Poestad eta Martinez):

1º.- Udal idazkariak egin duen txostena onartzea.

okia erabiltzen duten gazteei ikurriña ken dezatela eskatzea

Hartutako erabakiaren berri Juan Bautista Urtasun Errori ematea.

## **10.- IPETEAKO LURSAIL BATZUEN AFEKTAZIOAREN ERABAKIA**

Alkateak, Irigaray jk., hitza hartu du eta proposatu du Ipetean SI-1 poligonoarekin muga egiten duten lurzatiak, udal planaeen ondareko ondasun izatetik herrilurrak izatera pasatuz. Bere proposamenaren arrazoia da poligonoa egin zenean lur horiek gorde zirela handitu ahal zela aurreikusi baizen. Udal plan orokorra gauzatzean, ingurumeneko eraginaren fasea onesteko poligonoa murriztu zutela gaur egun urbanizatua dagoen eremura eta oraindik laur lursail daudela saldu gabe, beraz, epe motz/ertainera eskaera estalia dago. Etorkizunean handitu nahi bada lursailen izaera aldatu beharko da, baina hobe da aldaketa hori beharrezkoa denean egitea. Hortaz, ez du inolako zentzurik proposamenak aipatzen dituen lursail horiek ondareko ondasun izaera izatea eta bai berriz herrilurrak izatea, bizilagunen interesentzako onurgarriagoa baita. Gaia eztabaidatu ondoren, aho batez erabaki da:

1.- Ipetean SI-1 poligonoarekin muga egiten duten 6. poligonoko 233, 234, 235, 236, 237, 238, 244, 245, 246, 247, 248, 249, 250, 251, 252, 253, 254, 255, 256, 257, 258 eta 259. lurzatiaren afektazioa hasiera batean onestea, Udalaren ondareko ondasun izatetik herrilurrak izatera pasatuz eta katastroan egin beharreko aldaketak eginez

2.- 6/1990 Foru Legearen 177.2 artikulua araberako espedientea jendaurrean egonen da hilabetez.

### **11.- MAIORLATEGIAKO LURSAIL BATZUEN AFEKTAZIOAREN ERABAKIA**

Ondoren eta ildo berari jarraikiz, Alkateak, Irigaray jk., hitza hartu du eta proposatu du Maiorlategian, 6. poligonoko 4 (b barrutia), 24, 26, 27, 33, 34 (c barrutia), 56, 167, 226 (b barrutia) lurzatien afektazioa hasiera batean onestea, Udalaren ondareko ondasun izatetik herrilurrak izatera pasatuz. Bere proposamenaren arrazoia da joan den mendeko hirurogeita hamarrek hamarkadan eremu horretan bordak eta biltegiak egitea aurreikusi zelako. Gaur egun, horiek ez dira egin, laurogeiko hamarkadan Antso biko abere-poligonoa egin baizen, eremua hori kultur-interesekoa deklaratu izan da eta bai Luzaideko Udala, bere plan orokorraren eta babeseko plan berezien bidez, zein Nafarroako Gobernuko Bianako Printzea Erakundeak, azken honek antzinako harresia babesteko, eraikinak egitea galarazi baitute. Hortaz, ez du inolako zentzurik proposamenak aipatzen dituen lursail horiek ondareko ondasun izateara eta bai berriz herrilurrak izateara, bizilagunen interesentzako onurgarriagoa baita.

De Potestad jk. hitza hartu du eta esan du berak ez duela argi hori eraiki ezin denik, bere ustez eraiki ahal baita. Hirigintza garapenerako afera da eta berak ez du argi, nahiz eta ulertu Aranandi udal taldeak gaiaren inguruan duen iritzia eta hirigintzaren inguruan duen planteamenduari bat datorrela. Alkateak, Irigaray jk. erantzun du Udal Plan Orokorraren idazketan, 2006an, KIO ez bazen ere, Nafarroako Gobernuko Kultura Departamentuak ildo berari jarraikiz, txostena egin zuela.

Martinez jk. gaineratu du zaila dela horrelako gai baten inguruan adostea oso denbora gutxi eman baita ikertzeko eta, hortaz, argi ez duenez, bere taldeak kontra bozkatuko du.

Ondoren, erabaki da aldeko lau botoz (Azanza, Oyarbide, Azanza eta Irigaray) eta aurkako bi botoz (De Poestad eta Martinez):

1.- Maiorlategian, 6. poligonoko 4 (b barrutia), 24, 26, 27, 33, 34 (c barrutia), 56, 167, 226 (b barrutia) lurzatien afektazioa hasiera batean onestea, Udalaren ondareko ondasun izatetik herrilurrak izatera pasatuz.

2.- 6/1990 Foru Legearen 177.2 artikulua araberako espedientea jendaurrean egonen da hilabetez.

### **12.- BESTERIK**

#### **Mendiaundiren inguruko txostenaren eskaera**

Alkateak, Irigaray jk., jakinarazi du Nasuvinsako arkitektoari eskatu diola Mendiaundin silizea ateratzeko dauden aukeren inguruko hirigintza informea egitea eta hori negatiboa izan dela, indarrean dagoen udalaren arautegiaren arabera.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

#### **Haritzen landaketa Kiñoetan**

Alkateak, Irigaray jk., jakinarazi du 2013ko elurteen ondorioz Kiñoetako pinudia erabat hondatua gelditu zela eta teknikariek esandakoaren arabera, hoberena lekua ongi garbitu eta Garraldako haritzez landatzea da, modu naturalez sortzen baita hor haritza, eta Zokoetan lizarrak, lertxunak eta prunus padusak landatu direla.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

#### **Osoko Bilkurako aretoko margoak**

Alkateak, Irigaray jk., jakinarazi du bilkura aretotik kendutako margoen ordez, Ikurren Legea betetzen ez zutelako, Irukus Robles Arangizen margo lanak jarri direla eta Ernest Hemingway, Hermilio de Oloriz eta Fermín Irigaray (Larreko)ren erretratuak direla; herriarekin zerikusia duten idazleak dira, gure herriari eta bere kultura eta idiosinkrasiari buruz idatzi baitute, nahiz eta ikuspuntu diferenteak izan, bat kanpokoa baizen, bestea bertako historialari eta poeta eta bestea herrian jaiotako idazlea, oso inportantea euskararen letren munduan. Gaineratu du beste bat falta dela eta ferien kartelik zaharrenaren erreprodukzioa dela, 1867koa.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

#### **Soroluzea eta Antsobiko bideak**

Alkateak, Irigaray jk., jakinarazi du, Molinaldeatik Arranosinerrekako parrilaraino doan zatia eta Txardiensarotik Donpedroerrekarako doan zatia bikeztatzeak aurrekontuak eskatu dituela.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

#### **Produktu mikologikoen balorazioa**

Alkateak, Irigaray jk., jakinarazi du Garrapo enpresak eskualdeko produktu mikologikoen balorazioa eta bilketa kontrolatzeko aurkezpena egin duela.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

#### **Azienda marka eta auzolana.**

Alkateak, Irigaray jk., jakinarazi du eguraldiak oztopatzen ez badu Lindus, Atalozi eta Mendixurin bazkatuko den azientaren marka maiatzaren 17an egingo dela eta auzolana abeltzainekin adostuko den egunean, beraiek ahal dutenean eta eguraldiaren arabera.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

#### **Maiatzako edo Gurutze Santuko Feria**

Alkateak, Irigaray jk., jakinarazi du maiatzaren 4an, Udaberriko edo Gurutze Santuko feria modu sinbolikoan ospatuko denez, argitaratu gabe dauden eskualdeko argazkiak biltzen dituen argitalpena, Jose Etxegoien Juanarenak egina, aurkeztuko dela; argazki horiek 1917koak dira eta Eugenio Frankowski etnografo poloniarrek egin zituen.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

#### **Herriko hilerria hilerrien lehiaketara aurkeztea.**

Alkateak jakinarazi du lehiaketa bat dagoela hilerririk politena aukeratzeko. Bere ustez, gure herrikoa, bere ezaugarriak direla eta, lehiaketan parte hartu ahal du, eta saria lortuz gero, hobekuntzak egin ahalko dira eta bere kultur balioa agerian utzi.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

### **Bigarren Mundu Gerrako hegazkina.**

Alkateak, Irigaray jk., jakinarazi du 1944an Toulouseko arma lantegia bonbardatu behar zuen ipar amerikako hegazkin bat naziek erasotu zuten eta Berragu inguruan erori zen eta gure herrian zeuden militarrek hegazkinean zihoazen pertsonak bildu zituzten. María Esther Etcharren Etulainek eta Marco Julie, bere senarrak, hegazkinean zihoaztenen ondorengoekin harremanetan jarri direla eta, bere eskariz, oroimenezko ekitaldia egingo dela ekainaren 22an; ekitaldi horretan ahaideek parte hartuko dute eta nahi duen oro joan ahalko da, gertatu zenaren lekukoak oraindik bizirik daudelako.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

### **Udalerriko mugak**

Alkateak, Irigaray jk., jakinarazi du Herrilurretako Atalean egindako kontsultaren bidez egungo katastroak ez duela bat egiten Nazioko Institutu Geografikoan agertzen diren mugekin Menditxuri aldean Erroibarrekin, Badriaga, Joalegieta eta Tejeria aldean Orreagarekin eta Otsamietan Garraldarekin, eta laster jarriko dela harremanetan Udal horiekin akatsak zuzentzeko.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

### **Tokiko Administrazio Zuzendariarekin izandako bilera**

Alkateak, Irigaray jk., jakinarazi du, Erroibarko Udaleko alkatearekin eta idazkariarekin batera, Tokiko Administrazio departamentuko Zuzendari Nagusiarekin bilera izan zuela, tokiko erreformaren proposamenaren egoera ezagutu eta zerbitzuen batasuna sortzeko dauden trabak nola gainditu aztertzeko.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

### **Maisuaren Etxeko teilatua.**

>Alkateak, Irigaray jk., jakinarazi du Maria Urtasun Larrat arkitektuak ezin duenez proiektua egin, eskatu diola Eduardo Echeverria Tapiari, eta balioztaturiko memoria Toki Administrazio departamentuan aurkeztu duela, teilatua horren gaizki dagoenez urgentziazkoa deklaratzeko. Teilatuak eragina duenez ikastetxe publikoan eskola eraikinen deialdira ere aurkeztuko da.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

### **Hipoteka Legearen aurre-proiektua**

Alkateak, Irigaray jk., jakinarazi du Hipoteka Lege berriaren arabera, elizak ezingo duela ondasunak bere izenean eskrituratu, eta uste duela horrek arrazoi morala ematen diela Eliza Katolikoak zian duena pribilegio horren aurka egin dutenei, besteak beste gure Udala.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

### **Maisuaren pisuaren hondakinen garbiketa**

Alkateak, Irigaray jk., jakinarazi du herriko tabernetan esamesak entzuten direla eta batzuk diotela alkate gisa maisuaren pisuko hondakinen garbiketa Jesus Pedroarena Etulain jaunari eman diola zuzenean eta hondakinak bere anaiak, Fermin Irigaray jk., beretako eraman dituela; hori ez dela horrela baizik eta algoazilak hondakinak garbitu dituela lan orduetan eta hondakinak bide publikoan bota direla, modu altruistan, beste batzuetan Dufur anaiak, Zaldarria edo Mendikoak egin duten bezala. Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

### **13.- Eskariak eta galderak**

- Martinez jk. hitza hartu du eta jakinarazi du La Cadena izeneko atsedengunean txorrotak irekita daudela eta algoazilak arazoa konpontzeko neurgailua jarri beharko lukeela.

Alkateak, Irigaray jk., erantzun dio instalazioa Nafarroako Gobernukoa dela eta, hortaz, eskumena haiena denez, abisua emango diela arazoa konpondu dezaten.

-De Potestad zinegotziak hitza hartu du eta esan du Soroluzeako bideko sasiak erdira moztu beharko lirатеkeela, itzal gutxiago eman dezaten. Erantzun zaio sasiak jabedunak direla, hain zuzen ere Azanza Buruscorenak, eta berak moztu edo ez ikusiko duela, dena den Ingurumeneko Departamentutik esan zaio ez dagoela sasiak mozteko inolako arazorik.

- Jose Andres Urtasuni emandako obra baimenari dagokionez De Potestad jk. galdetu du zer nolako lanak egin behar dituen Maiorategiko bidean, Lastaperenaren parean, pareta bat eta hertsia bat egiten ari baita berea ez den lursailean. Alkateak, Irigaray jk., dio lurra eta "lau" harri bota behar dituela zati hori txukun uzteko, nahiz eta herriko lurra izan, eta horregatik ez zitzaiola OEGZ ordaintzea eskatu, eta eskatzailea dela hortaz probetxu aterako duena. De Potestad jk. dio argi geratu behar duela zati hori herrilurra dela, etorkizunean arazorik ez izateko horren jabetasunaren inguruan.

- Idazkariak jakinarazi du bilkura berezia egingo dela 2014ko apirilaren 29an, maiatzaren 25ean egingo diren Europako Legebiltzarreko Hauteskundeetako mahaietan arituko diren pertsonak izendatzeko.

Eta besterik gabe, bilera bukatutzat eman da 21:45ean, eta nik neuk akta idatzi eta fede eman dut.